

# DEBA BERRI

2020ko uztaila 13. zbk

COVID19 MONOGRAFIKOA



# BIZIBERRITZE FASEARI EKIN DIOGU

Debaberri 13
2020ko uztaila

## AURKIBIDEA

2 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .Udaletxetik

3-4-5 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Denbora lerroa: koronabirusa Deban.

6-7 . . . . . . . .Gizarte Zerbitzuen lana.

8-9 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Entrevista a Arantza Aranburu Lasa, responsable del centro de salud Deba-Mutriku

10-11-12 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Gilen Garcia Boyra alkateari elkarrizketa

13-14-15 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Koronabirusa Deban argazkietan.

16 . . . . . . . . . . . . .Itziarko Auzo Udala

17 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Itziarko Auzo Udala. Arantza Egaña Aldalur Itziarko auzo alkateari elkarrizketa

18-19-20-21 . . . . . .Herritarren hitza.

22-23 . . . . . .Alderdi politikoen iritzia

23 . . . . . . . .Harremanetarako bideak

24 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Deba-Itziar Biziberritzeko Plan Integrala

Deba ETORKIZUNA ORAIN

© Argitaratzailea: Debako udala.

Egilea: SharinF5 Kooperatiba
Azaleko argazkia: Ander Salegi
Lege Gordailua: L.G. SS-918-2012

## HANKAZ GORA JARRI ZITZAIGUN EGUNEROKOA BIZIBERRITZEN HASI GARA

Urte hasieran, hilabete batzuk pasata gure ohiko hiztegiaren parte bihurtu den hitza entzuten hasi ginen, COVID-19. Eta une horretan kokatu genuen gutako askok Wuhan munduaren mapan. Denbora gutxira, otsailean, hain urrun ikusten genuen eta ezezaguna zitzaigun hori, sukalderaino sartu zitzaigun.

Martxoan, Madrilgo gobernuak alarma egoera ezartzearekin batera, ordura arteko egunerokoa hankaz gora jarri zitzaigun. Lehen momentu horretatik, Debako udalak gaiari heldu eta egoerak eskatzen zuen mailan erantzuteko ahalegina egin du.

Oso erritmo bizia hartu zuen udalaren egunerokoak, egunez egun egoera aldatzen joan eta horri erantzuteko neurriak hartu behar izan baititugu.

Berehala ikusi genuen oraingoan ere zeinengan izango zuen eraginik handiena pandemia egoera honek, pertsonarik zaurgarrienetan. Eta pertsona horiek buruan hasi ginen lanean, gizarte zerbitzuen bitartez bereziki, baina baita zaintza sarearen bitartez ere.

Horiek ahaztu gabe, herriko merkatari, ostalari eta negozio txikiak dituztenei laguntzeko bitartekoak ere martxan jarri genituen. Azken asteotan, udalerria modu integralean biziberritzeko Deba-Itziar Biziberritzeko Plan Integrala lantzen aritu gara buru belarri. Guztion artean lortuko baitugu egoera birbideratzea, biziberritzea, elkar zainduz, elkar babestuz.

## HEMOS COMENZADO A REVITALIZAR LA COTIDIANIDAD QUE DIO UN GIRO DE 180 GRADOS

A principios de año comenzamos a oír un nombre que pasados unos pocos meses se ha convertido en parte de nuestro vocabulario diario, COVID-19. Y también en ese momento ubicamos muchas personas el nombre de Wuhan en el mapamundi. Al poco tiempo, en febrero eso que sentíamos lejano y desconocido se nos introdujo hasta el interior de nuestras casas.

En marzo, con la imposición del estado de alarma por parte del gobierno de Madrid, el día a día que conocíamos dio un giro de 180 grados. Desde ese primer momento, el ayuntamiento de Deba ha hecho un esfuerzo por abordar y responder a esta situación a la altura de las circunstancias.

La cotidianidad del ayuntamiento tomó un ritmo frenético, ya que día a día ha ido cambiando la situación y hemos tenido que tomar medidas para responder a ésta en cada momento.

Enseguida vimos quiénes iban a sufrir más, una vez más, este estado de pandemia: las personas más vulnerables. Y comenzamos a trabajar con la mente puesta en ellas, especialmente a través de los servicios sociales, pero también a través de la red de cuidados.

Sin olvidarnos de ellas, pusimos en marcha los medios para ayudar al sector del pequeño comercio, hostelería y pequeños negocios de la localidad. Estas últimas semanas, hemos estado trabajando en el plan integral de revitalización de Deba-Itziar para la revitalización integral del municipio. Porque entre todas y todos conseguiremos reconducir la situación, revitalizarla, cuidándonos, apoyándonos mutuamente.






# Denbora-lerroa

**Martxoaren 12an hasi zuen Debako udalak COVID-19ak eragindako osasun alarmaren egoeraren kudeaketa. Azkar mugitu dira gauzak ordutik. Herrian, kalean, erritmoa moteldu egin zen hein handi batean, konfinamendurako agindua eman zen unetik aurrera. Udalaren jarduna, aitzitik, bizia, bizkorra, frenetikoa izan da.**

Lehen une hartan, langileei egoeraren berri eman zitzaien eta ordutik aurrera, beharrak hala eskatu duenean koordinatu da. Langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko helburuz, telelana antolatu zen. Zerbitzuak emateko modua aldatuta, langileen jarduna ere horretara moldatu zen. Pertsona batzuen funtzioak egoeraren beharretara birmoldatuz, adibidez.
Hasieratik sortu zen jarraipen batzordea, egoera kudeatzeko koordinaziorako gunea izan dena. Osasun agintariek emandako irizpideei jarraituz izaera askotariko erabakiak hartu dira, udalbatzarekin eta Itziarko Auzo Udalarekin partekatuta.
Udal eraikinak itxi, herriko bestelako zerbitzu, merkataritza eta ostalaritza guneak ixteko gomendioa eman, herritarrei etxean geratzeko aholkuak eman... egitearekin batera, berehala heldu zitzaion egoera zaurgarrian zeuden pertsonen ongizateari eta horretarako gizarte zerbitzuetako lana berrantolatu eta indartu zen, zaintza sarea eta jostun sarea lagundu dira...
Ohiko jarduna, ez-ohiko moduan bideratzen joan zen ondoren, baliabide telematikoak erabiliz batzordeetako eta udalbatzako bilerak eginez.
Osasun krisiak eragindako krisi ekonomiko eta sozialaren kalte ondorioak arintzeko hainbat neurri hartu dira ondoren. Eta, pixkanaka, joan da berriz herria biziberritzen.

12 de marzo. Ese día comenzó el Ayuntamiento de Deba con la gestión de la situación de alarma sanitaria generada por la COVID-19. Desde entonces todo ha ido muy deprisa. En gran medida, el ritmo de la calle se ralentizó a partir de la imposición del estado de alarma y el confinamiento. Por el contrario, la actividad en el ayuntamiento ha sido rápida, frenética.
En ese primer momento se informó al personal de la situación y a partir de entonces se ha coordinado cuando la necesidad lo ha requerido. Con el fin de garantizar la salud y seguridad de los y las trabajadoras, se organizó el teletrabajo. Una vez modificada la forma de prestación de los servicios, la actividad del personal también se adaptó a la misma. Reconvirtiendo las funciones de algunas personas a la demanda de la situación, por ejemplo.
Desde el principio se creó la comisión de seguimiento, que ha sido un espacio de coordinación para gestionar la situación. Siguiendo los criterios dictados por las autoridades sanitarias se han tomado decisiones de diversa naturaleza, compartidas con la corporación y la Entidad Local Menor de Itziar.
Al mismo tiempo que se decretaba el cierre de edificios municipales, recomendación de cerrar otros servicios, centros comerciales y hosteleros del pueblo, aconsejar a la ciudadanía quedarse en casa..., se abordó inmediatamente el bienestar de las personas en situación de vulnerabilidad y para ello se reorganizó y reforzó el trabajo de los servicios sociales, así como se ha apoyado la red solidaria de cuidados y la red de costureras...
Se reanuda la actividad ordinaria, pero de forma extraordinaria, como en el caso de la realización de las reuniones de las comisiones y el Pleno por medios telemáticos.
Se han adoptado posteriormente una serie de medidas para paliar los efectos negativos de la crisis económica y social provocada por la crisis sanitaria. Y, poco a poco, se ha ido volviendo a revitalizar el pueblo.

# DENBORA LERROA

**2020/03/12**
Udal Langileekin bilkura egoeraren berri emateko

**2020/03/12**
Jarraipen batzordearen osatzea

**2020/03/12**
Udal eraikinak behin-behinean itxi

**2020/03/13**
Kultur eta kirol jarduerak eten

**2020/03/13**
Osasun alarma (Eusko Jaurlaritza)

**2020/03/13**
Gizarte zerbitzuen berrantolaketa

**2020/03/14**
2020ko otsailaren 17ko ezohiko Udalbatzarra bertan behera uztea

**2020/03/14**
Alarma egoera (Espainiako Gobernua)

**2020/03/14**
Dendak eta tabernak ixteko gomendioa, herritarrak etxetik ahalik eta gutxien irteteko gomendioa

**2020/03/14**
Zaintza sare herritarra sortu Gurutze Gorriarekin elkarlanean

**2020/03/14**
Udaleko langileen osasuna babesteko asmoz hartu beharreko neurriak aztertu

**2020/03/14**
Martxoaren 16 eta 17tik aurrera lanpostuetan hartu beharreko neurriak zehaztu

**2020/03/14**
Martxoaren 17ko Ez-ohiko Osoko Bilkura bertan behera uztea

**2020/03/14**
Etxetik telelana egin ahal izateko eman beharreko pausuak eman

**2020/03/20**
Jarraipen batzordearen bilera

**20/03/20**
77 urtetik gorakoei deiak antolatu

**2020/03/20**
TAOaren etetea

**2020/03/21**
Kale garbiketa indartu, desinfekzio lanak. Mankomunitatearen jardunaren moldaketa

**2020/03/25**
Udal zergen ordainketak atzeratzea

**2020/03/27**
Jarraipen batzordearen bilera

**2020/03/27**
Etxegabeentzat aterpetxea martxan jartzeko erabakia hartu

**2020/03/30**
Hilerria. Barne protokoloa

**2020/03/30**
Hilerria. Protokoloa-Debako familiak

**2020/04/02**
Bozeramale batzordearen bilera Gaiak: alarma egoeraren nondik norakoak, aurrekontuak

**2020/04/06**
Jarraipen batzordearen bilera

**2020/04/06**
Udal buletina sortu (0 alea)

**2020/04/09**
Erromesen aterpetxea etxe gabeentzat ireki

**2020/04/10**
65 urtetik gorakoei deiak.

**2020/04/15**
Ogasun batzordearen bilera
Gaiak: aurrekontuak, alarma egoerarako neurriak (zergak murriztu, musika eskola eta kiroldegiko kuotak, kirol/kultur jarduerak ospatu ala ez ...)

**2020/04/20**
Ogasun Batzordearen bilera
Gaiak: aurrekontuak, Kuttuna bonoak

**2020/04/24**
Deba Musikal Patronatuko elkarteekin bilera

**2020/04/27**
Jarraipen batzordearen bilera

**2020/04/27**
Ogasun batzordearen bilera
Gaiak: aurrekontuak

**2020/04/27**
Udal liburutegiko mailegu zerbitzua martxan jarri

**2020/04/30**
Osoko bilkura: 2020ko aurrekontuen onarpena

**2020/04/30**
Erosketa bonoak merkataritza eta ostalaritzaren sustapenerako

**2020/05/04**
Jarraipen batzordearen bilera (Deseskalada)

**2020/05/08**
Bozeramale batzordearen bilera
Gaiak: batzordeak martxan jartzea (kultura, hirigintza, gizarte zerbitzuak, zerbitzuak...), Debarren eguna, 0 fasearen balorazioa, 1 fasearen aurreikuspena...

**2020/05/11**
Ostalarien ordezkariekin bilkura

**2020/05/15**
Bozeramale batzordearen bilera
Gaiak: hondartzak, biziberritze plan integrala, M17 adierazpen instituzionala, izozkien etxolak ...

**2020/05/17**
Debarren egunaren ospakizuna

**2020/05/18**
Zurrunbilo eta Debakayak lokalak irekitzea

**2020/05/20**
Deba-Itziar biziberritzeko plana egingo dela iragarri

**2020/05/21**
Langileen ordezkariekin bilera
Elkar zaintza sarearen lehen bilera

**2020/05/21**
Herriko eragileekin bilkura, hondartzako erabileraren inguruan

**2020/05/25**
Deseskaladaren 2. fasea

**2020/05/25**
Aldats frontoia irekitzea

**2020/05/26**
Itziarko Zabalsoro frontoia eta Lasturko frontoia, rokodromoa eta bolatokia irekitzea

**2020/05/28**
Elkar zaintza sarearen bigarren bilera

**2020/05/28**
Osoko bilkura

**2020/05/28**
Bozeramale batzordearen bilera
Gaiak: biziberritze plan integrala; turismo bulegoa, eguneko zentroa eta kiroldegiaren irekierak; UFFF mozioa; langileekin negoziazio mahaiaren sorrera ...

**2020/06/01**
Debako hilerria berriro irekitzea

**2020/05/20**
Itziarko hilerria eta Deba eta Itziarko udal harrera bulegoak berriro irekitzea

**2020/05/26**
Itziarko Zabalsoro frontoia eta Lasturko frontoia, rokodromoa eta bolatokia berriro irekitzea




# Aritz Larrañaga Unanue:

## “Esta crisis ha dejado de manifiesto las desigualdades sociales que padecemos en la sociedad actual”

*Santio bideko erromesen aterpetxea pertsona etxegabeentzat prestatu zen. Argazkiak: Ander Salegi.*





**De la misma manera que el estado de alarma sanitaria decretado por la COVID-19 ha afectado a todos los ámbitos de la vida, también ha afectado a la organización y actividad del Ayuntamiento, en todos los ámbitos. La de las políticas sociales, y los servicios sociales en particular, ha sido una de las áreas más afectadas. Enseguida lo previó el ayuntamiento de Deba y hubo que reorganizar los Servicios Sociales, tal y como explica Aritz Larrañaga Unanue, concejal de Políticas Sociales. "Enseguida vimos que esta crisis sanitaria afectaría más a las personas que ya vivían en situación vulnerable. Que se les iba a empeorar aún más la situación que vivían hasta entonces y hemos trabajado en todo momento con el objetivo de paliar los efectos negativos de la pandemia en la medida de lo posible".**

Ohiko egoeran kudeatzen ez diren beharrak eta baliabideak kudeatu beharra eragin zuen COVID-19ak. Eta ez hori bakarrik, aurretik betetzen zituzten lanei ere erantzun behar izan diete Gizarte Zerbitzuek. “Gizarte Zerbitzuetako langileak buru belarri aritu dira lanean eta berehala erakutsi zuten egoerara egokitzeko prestutasuna. Ez hori bakarrik. Behar berriak sortuta, hainbat udal langile ere, beste arlo batzuetan lanean aritzen direnak, baina une horietan euren jardun normala moteldutа edo etenda zutenak, gizarte zerbitzuei lotutako lanetan laguntzen aritu dira. Zaintza sarea koordinatzen, pertsona helduei telefono deiak egiten, familia desegituratuei laguntza psikologikoa eskaintzen, etab.”, Larrañagaren hitzetan.

> “Se nos dio orden de confinamiento a la ciudadanía. Pero, ¿cómo se va a quedar en casa la persona sin hogar? Esta crisis ha puesto sobre la mesa la situación de las personas sin hogar y sus dificultades añadidas.”

Mantendu egin dira bertatik bideratzen diren laguntzak. Bestalde, familiekin egiten den jarraipena, telefono bidez mantendu da. Hala egin da, halaber, arriskuan dauden adin txikikoekin, esku-hartze familiarra telefono bidez eginez. Eta baita gizarte egoera zaurgarrian daudenekin ere. Beharra duten herriko 50 familiei 4 aldiz banatu zaizkie jatekoak.

Familia horien artean, Gizarte politiketako zinegotziaren esanetan, “zortzi dira familia berriak, gainontzeko 42ak osasun alarma sortu aurretik egoera zaurgarrian zeuden jada. Denak bizi dira pobreziaren mugatik behera”. Horietatik 17k Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzen dute. Hauen egoera ez da aldatu COVID-19aren ondoren.

Beste 18 familia daude Gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzen dituztenak. Beste 15 familiak prestazioetatik kanpo daude.

Adinekoen zentroa itxi egin behar izan zen alarma egoera ezartzearekin batera, baina bertako erabiltzaileei haien etxean eman zaie zerbitzua. Etxeetan zerbitzua jaso ohi duten beste 14 pertsonen zerbitzua ere mantendu da.

Osasun alarma ezartzearekin batera, herritarrei konfinamendurako agindua eman zitzaigun. Baina, nola geratuko da etxean etxerik gabeko pertsona? Krisialdi honek mahai gainean jarri du etxegabeen egoera eta egoera berri horretan zituzten zailtasun gehituak. Debako udalak, eskualdeko udalerriekin elkarlanean, pertsona hauentzat Donejakue bideko erromesen aterpetxea moldatu zuen. “Deban, Madrilek konfinamendurako agindua eman zuenean, pertsona bat zegoen kalean bizitzen eta Donostiako aterpetxe batera bideratu zen. Donostiako egoitza bete egin zen eta gure eskualdean, Mendaron, beste bi pertsona zeuden etxegabe eta bertako udalak eta Gurutze Gorriak prestatu zieten konfinamendua pasatzeko tokia.”

Beharra handitu zitekeelako eta pertsona horiei ahalik eta lekurik egokiena eskaintzearren, Debako alkateak eskualdeko gainontzeko alkateekin harremana egin zuen eta aterpetxearen aukera eskaini. “Herrietako gizarte zerbitzuak koordinatu ziren guztia prestatzeko eta apirilaren 9an zabaldu zen. Mendaron zeuden bi pertsonak hartu zituzten lehenik eta beste bi ere egon dira ondoren.

Aritz Larrañagaren ustez, COVID-19ak agerian utzi du “pertsonen artean zer nolako desberdintasunak dauden. Pertsona batzuen egoera oso kezkagarria da eta irtenbide orokorra eman beharko litzaioke egoera honi, gizarte bezala. Hasteko, horretarako bitartekoak eta erabakimena duten instituzioek hartu behar dituzte neurriak, pertsonen artean horrelako arrakalak eragingo ez dituen sistemaren alde eginez”.

> “50 familias han recibido 4 veces comida del banco de alimentos.”



**Arantza Aranburu Lasa (Zarautz, 1966)**

**Deba eta Mutrikuko osasun zentroko arduraduna**

**Ha trabajado y está trabajando intensamente en la pandemia provocada por la COVID-19. En primer lugar, ¿cómo está viviendo personalmente todo esto?**

Este período lo vivimos con mucha preocupación al ver en tan poco tiempo nuestro sistema sanitario tan colapsado. Aquí, concretamente, hemos tenido mucha suerte hasta este momento, ya que la pandemia no nos ha golpeado de forma importante. Tenemos mucho respeto a lo que pueda pasar en este futuro ante una pandemia cuyas dimensiones nos han sorprendido a todos. Personalmente, ha supuesto un nuevo orden en la dinámica familiar, los hijos en casa, ERTEs en la familia, venir a trabajar con la incertidumbre de lo que nos tocará ver, padres a los que no visitamos ... Problemas cotidianos de todo el mundo.

**De repente, a principios de año empezamos a oír que un nuevo virus empezaba a propagarse en China. Lo que veíamos lejos se nos metió hasta la cocina. ¿Cómo fueron esos primeros días en el centro de salud?**

En un principio lo veíamos como lejano, como otras infecciones por coronavirus que hace no tantos años hubo en oriente. A principios de marzo Osakidetza empezó a prohibir las reuniones de mas de 10 personas, y nosotros ya empezamos a ver cambios en nuestra dinámica de reuniones anuladas, cursos, y luego llegó la declaración del estado de alerta, con los cambios organizativos: se cerró el centro de salud de Mutriku, el consultorio de Itziar, todo. La valoración en principio era telefónica,….

**¿En qué condiciones han tenido que trabajar?**

Tuvimos una reestructuración de plantilla, algunos de nuestros compañeros fueron al Hospital de Mendaro, al de Eibar, el call-center… a reforzar otros servicios más afectados, el resto tras cerrar el Centro de Salud de Mutriku y el de Itziar, realizamos trabajo telefónico, y aumentó mucho la cantidad de domicilios que se visitaban sobre todo para enfermería…
Nos reuníamos a diario para organizar las tareas. La valoración telefónica ha supuesto un esfuerzo importante para poder hacer las valoraciones adecuadas, y para ello hemos contado con la colaboración de la población que hay que agradecer y volver a agradecer.



# “No podemos bajar la guardia, ya que en un santiamén todo puede cambiar, y hemos de poner cada uno nuestro gran granito de arena”

**Arantza Aranburu Lasa (Zarautz,1966) Deba eta Mutrikuko osasun zentroko arduraduna da, lehen arreta unitateko arduraduna, hain zuzen. Covid-19ak eragindako osasun alarma egoera bitartean bere lana egiten aritu da Debako osasun zentroan. Deban pandemiak eragin handirik izan ez badu ere, kezkaz bizi izan du eta bizi du honek eragindako egoera, mediku bezala, baina baita maila pertsonalean ere, elkarrizketan aitortu duen moduan. Egoera ezezagunari erantzuteko osasun zentroan egin behar izan dituzten moldaketak azaldu dizkigu eta oraindik ere arretaz aritzeko gomendioa egin digu herritarroi.**

**Por el momento, afortunadamente, la enfermedad no ha tenido mucha incidencia en nuestro municipio, pero nos recuerdan desde las autoridades sanitarias que no podemos relajarnos. ¿Qué recomendaciones querría hacer a la ciudadanía debarra?**

No podemos bajar la guardia, y las medidas que se han adoptado en este seguimiento, son medidas necesarias de Salud publica. Hemos de mantenerlas por nuestra salud y por la de nuestros vecinos, familiares… Aunque la incidencia haya bajado, no podemos bajar la guardia, ya que en un santiamén todo puede cambiar, y hemos de poner cada uno nuestro gran granito de arena.

**¿Qué consecuencias o enseñanzas debería dejarnos para el futuro esta situación que estamos viviendo?**

Hemos de fortalecer nuestra salud publica. Hemos de cambiar el chip y reflexionar sobre las medidas higiénicas que mantenemos, que actitudes de cada uno pueden ayudar a fortalecer la salud comunitaria y una reflexión importante en el tema residencias, uso de bienes comunitarios, transporte público y una mirada para poner en valor las labores que realizan nuestros vecinos en supermercados, limpieza de nuestros pueblos, cuidadores de nuestros niños, padres, profesores… gracias a todos.

“Zorte handia izan dugu orain arte, pandemiak ez baikaitu asko kolpatu”

“Telefono bidezko balorazioak egiteak ahalegin handia eskatu digu balorazio horiek egoki egin ahal izateko, baina, herritarren laguntza izan dugu, eta eskerrak eman behar dizkiegu”

“Errespetu handia diogu etorkizunean gerta daitekeenari, pandemia baten aurrean. Pandemia horren neurriak harritu egin baikaitu”



“Hemos visto que debíamos afrontar esta situación como pueblo”

**Acaba de cumplir un año en la alcaldía y en los últimos meses le ha tocado gestionar la crisis sanitaria.**
**¿Cómo lo ha vivido?**

Nos sorprendió. Cuando el 14 de marzo se decretó el estado de alarma nos sumergimos en la gestión del tema. Había que seguir las instrucciones y órdenes que dictaban los organismos y las autoridades sanitarias en una situación desconocida y muy cambiante. Sin embargo, siempre hemos tenido claro que teníamos que poner a la ciudadanía en el centro y hemos intentado gestionar así la situación. En el primer momento pusimos el énfasis en atender a las personas más vulnerables.

# “Guztiok ikusi dugu herri gisa erantzun behar geniola egoera honi”

**Gilen Garcia Boyrak (Durango, 1987), Debako alkateak, urtebete egin berri du alkatetzan. Koronabirusak eragindako egoerari erantzuteko Deba-Itziar Biziberritzeko Plan Integrala aurkeztu berritan, atzera begirako ariketa ere egin du. Ia egunetik egunera aldatzen joan den egoera kudeatzea erraza izan ez bada ere, pozik dago herritarrek erakutsi duten elkartasunerako jarrerarekin.**

**Urtebete egin berri duzu alkatetzan. Azken hilabeteotan osasun krisialdia kudeatzea egokitu zaizu. Nola bizi izan duzu?**

Denok harrapatu gintuen ezustean. Martxoaren 14an alarma egoera ezarri zenean buru belarri jarri ginen gaiaren kudeaketan. Udalaren goragoko erakundeek eta osasun agintariek ematen zituzten jarraibide eta aginduak bete behar ziren, ezezaguna eta oso aldakorra zen egoeran. Hala ere, beti izan dugu argi herritarrak jarri behar genituela erdigunean eta egoera horrela kudeatzen saiatu gara. Lehen unean beharrizan handiena duten pertsonak artatzen jarri genuen indarra, izan ere, lehendik ere egoera zaurgarrian zeuden pertsonengan eragin du eta eragingo du bereziki kaltea pandemia egoera honek.

**Eta pertsonalki?**

Ingurukoekiko kezkaz, noski, jende guztiaren antzera. Gauza ezezagunek sorrarazten diguten kezkarekin, baina zorionez Deba eta Itziarren, eta inguruko herrietan, gaitzaren eragina ez da handia izan. Etxeko egoera ez da erraza izan eta gauza asko batu izanaren sentsazioa ere izan dut, baina aurrera egitea besterik ez da geratzen. Horretaz gain, eta orain erabat kontziente ez izan arren, ziur naiz egoera zail hau kudeatu behar izanak asko ikasteko aukera emango digula.

**Eta nola izan da kudeaketa?**

Dena oso azkar joan da, egoera ordu gutxietan aldatu da askotan. Baina, taldean egin dugu lan eta horrek emaitzak eman ditu. Udalbatzako kideekin, Itziarko Auzo Udalarekin, eta nola ez, udal langileekin. Gauza asko berrantolatu behar izan ditugu, bai eraikinei lotuta, baina garrantzitsuagoa dena, pertsonei begira. Udal langile taldeak telelana egin du horretarako aukera zegoenean, batzuen kasuan lana handitu egin zaie (gizarte zerbitzuetan edo garbiketa eta desinfekzioan, kasu), beste batzuk beste lan batzuetan jarri behar izan ditugu (zaintza sarea Gurutze Gorriarekin koordinatzen, adibidez)... baina erantzuna oso positiboa izan da, eskertzekoa.

**Osasun alarma egoeraren ondorenerako Deba-Itziar Biziberritzeko Plan Integrala aurkeztu berri duzue.**

Osasun krisiari, ondoren batu zaizkio soziala, ekonomikoa, kulturala... Ondorioz, egoera orokor batek, irtenbidea ere integrala behar duela ikusi genuen eta horrela kudeatu dugu. Plan integralak arlo desberdinak barne biltzen ditu, Debako udalerriko herritarrak blaitzen dituzten gai desberdinak, kezkak eragiten dizkietenak. Zaintza, adibidez. Konfinamenduaren garaian agerian geratu den gaia izan da. Esan zaio jendeari telelana egiteko, etxean, baina ez da planteamendurik egin familien kontziliazioari begira, adibidez. Guk uste dugu gai horiek ere erdigunera ekarri behar ditugula.

**¿Y personalmente?**
Con la preocupación que nos causa lo desconocido. La situación en casa no ha sido fácil y también he tenido la sensación de haber sumado muchas cosas, pero sólo queda avanzar. Además de eso, y aunque ahora no sea del todo consciente, estoy seguro de que el hecho de tener que gestionar esta difícil situación nos va a permitir aprender mucho.

**¿Y cómo ha sido la gestión?**
Todo ha ido muy rápido, pero, hemos trabajado en equipo y eso ha dado resultados. Con la corporación, con la Entidad Local Menor de Itziar, y cómo no, con la plantilla municipal. Hemos tenido que reorganizar muchas cosas, tanto vinculadas a los edificios, pero lo que es más importante, de cara a las personas. La respuesta ha sido muy positiva y es de agradecer.

**Acaban de presentar el plan integral de revitalización de Deba-Itziar.**
A la crisis sanitaria, se le han unido después la social, la económica, la cultural... En consecuencia, una situación general, vimos que necesita también una solución integral y así lo hemos gestionado.

>>>>




**Planaren berri emandakoan, elkarlana nabarmendu duzu.**

Bai. Uste dut hori indargune bat dela. Egoera honetan, gainera, are garrantzitsuagoa zuzenean inplikatutako eragile eta pertsonekin partekatutakoa izatea. Eskertzekoa da oposizioko alderdiek krisialdi honetan elkarlanerako izan duten prestutasuna eta baita herriko eragile sozial, kultural, ekonomikoek... guztiok ikusi dugu herri gisa erantzun behar geniola egoera honi.

**Egoera berezi honek irakaspenik utzi dizu?**

Bai, noski. Egoera zailetan bereziki, beti daude ikasteko gauzak, unean bertan, agian ikusten ez direnak, baina perspektibarekin ikusiko ditugunak. Pazientzia lantzeko ariketa interesgarria izan da.

**Eta zer nabarmenduko zenuke?**

Uste dut krisi egoera honek agerian utzi duela sektore publikoaren alde egitearen beharra. Nabarmendu nahi dut oinarrizko zerbitzuak ematen ari diren sektoreetarako pertsonen, profesionalen garrantzia eta beharrezkotasuna. Ziur asko, gizarte bezala nahikoa baloratu ez ditugunak, txaloetatik harago. Zerbitzu publiko indartsua behar dugu, baliabide ekonomiko, material eta pertsonal egokiekin eta marko ekonomiko berria, aukera emango diguna gure bitarteko material propioak izateko, adibidez.

**Zer mezu helarazi nahi diezu debarrei?**

Oro har pozik nago egoera zail eta berezi honetan herritarrek izan duten jarrerarekin. Besteekiko elkartasunez jokatu dute, adibidez, zaintza sarean edo jostun sarean parte hartzen. Une honetan, zentzuz eta modu solidarioan joka dezaten eskatu nahi diet, badakit denbora luzea eman dugula konfinatuta eta kalean ibiltzeko irrikan daudela, baina ez da ahaztu behar birusa oraindik ere hemen dela eta azken egunotan ikusitako hainbat irudi kezkagarriak dira. Uda garaia estreinatu berri, ezin aipatu gabe utzi azken asteotan behin baino gehiagotan aipagai izan dugun hondartza. Gure asmoa da jendeak aukera izan dezan hondartzaz eta gure ingurune naturalaz gozatzeko. Horretarako, eskura ditugun bitarteko guztiak jarriko ditugu, baina ahaztu gabe herritarron osasuna eta segurtasuna. Horregatik, udalaz goragoko administrazioek bermatu beharko dute, udalari bitartekoak eskura jarriz, denon osasuna eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eskainiz. Gu horren kudeaketa ona egiteko prest gaude.

**En la presentación del plan, ha destacado la colaboración.**

Sí, creo que eso es un punto fuerte. Es de agradecer la disposición de los partidos de la oposición a colaborar en esta crisis y también la de los agentes sociales, culturales, económicos... todos y todas hemos visto que teníamos que responder como pueblo a esta situación.

**¿Esta situación especial le ha dejado alguna enseñanza?**

Sí, claro. Siempre hay cosas que aprender, especialmente en situaciones difíciles. Ha sido un ejercicio interesante para trabajar la paciencia.

**¿Y qué destacaría?**

Creo que esta situación de crisis ha puesto de manifiesto la necesidad de apostar por el sector público. Quiero destacar la importancia y la necesidad de las personas que están prestando servicios básicos. Probablemente, personas que no hemos valorado lo suficiente como sociedad, más allá de los aplausos.

**¿Qué mensaje quiere trasladar a la ciudadanía debarra?**

En general estoy satisfecho con la actitud que ha demostrado la ciudadanía, ha actuado de forma solidaria, por ejemplo, participando en la red de cuidados. En estos momentos, quiero pedirles que actúen con sentido común, no hay que olvidar que el virus sigue estando aquí y varias de las imágenes vistas en los últimos días son preocupantes. Recién estrenada la época estival, no podemos dejar de mencionar la playa. Nuestra intención es que la gente pueda disfrutar de la playa y de nuestro entorno natural. Para ello, pondremos todos los medios a nuestro alcance, pero las administraciones supramunicipales deberán facilitar los medios necesarios para garantizar la salud y la seguridad. Nosotros y nosotras estamos dispuestas a hacer una buena gestión de ellos.

# KORONABIRUSA IRUDIETAN

Argazkiak: Ander Salegi.




**Alarma egoera ezarri ondoren, konfinamendua ezarri zen. Horren ondorioz, kaleetako bizitza itzali egin zen eta ohikoak ez genituen irudiak sortu ziren.**

Con la imposición del estado de alarma, tuvimos que confinarnos. Eso llevó a apagar la vida de las calles y generar imágenes inéditas.



















**Egoera honen ondorioz, elkartasun adierazpenak piztu ziren eta horrekin batera, ikasi genuen ospakizunak etxean, balkoietan egiten.**

Esta situación ha puesto de manifiesto el espíritu solidario y hemos aprendido a realizar las celebraciones en casa y balcones.











Denbora aurrera joan ahala, biziberritze faseari ekin diogu, nahiz eta ohiko normaltasunera ez garen bueltatu eta hainbat elementu gure eguneroko bihurtu dira.

Con el paso del tiempo hemos comenzado la fase de revitalización, aunque no hemos vuelto a la normalidad que conocíamos y ciertos elementos se han convertido en parte de nuestro día a día.












ITZIARKO AUZO UDALA

# Goiari eutsi



**Joan den apirilaren 26an hasi ginen koronabirus gaitzak eragindako itxialdi luzetik irten eta pixkanaka bizimodu publikoa egiten. 5000 biztanletik beherako entitatea izanik Itziarko Auzo Udala ordutegi librea baliatu ahal izan genuen Osasun Sailak ezarritako irizpideen baitan umeak etxetik irteten hasteko, bertatik bertara ibilaldiak eginez. Harrezkero pixkana egokituz joan gara egoera berrira, larrialdiak arintzera egin duen heinean.**

Hilabete hauetan hainbat estualdi eta zailtasun bizi izan ditugu. Orokorrean eredugarria izan da herritarren portaera eta kezka, nola edo hala goiari eutsi diogu. Ezin goraipatu gabe laga Deba zein Itziarren sortutako zaintza sarea eta boluntarioen lan fina. Gabezia ugari ditugun arren, bere horretan herri txikiok eta landa eremuak ondo eutsi diogu larrialdi egoerari. Komunitate kohesioak eta eremu zabalean bizitzeak leundu egin dizkigute alarmaren aurrean hartutako muga zorrotzak.

Denbora tarte honetan inoiz baino gehiago estimatu ditugu giza harremanak eta elkarrekiko babesa. Zerbitzu publikoen garrantzia ulertu dugu eta txikitasuna preziatzen ikasi dugu. Beste lekuetara joaterik ez eta hainbatek lehenengo aldiz ezagutu ditu inguruko txoko eta parajeak.

Azken hamarkadetan birzentralizazio politikak nagusitu dira lurraldean zehar. 2008ko krisiaren ondoren, zerbitzu eta industriak hirigune eta herri handien inguruan biltzen ikusi ditugu. Dentsitate handiko etxebizitza bloke berriak elkarren ondoan kontzentratu dira, ustezko bizimodu eroso eta praktikoaren eredua sustatuz, aurrerakuntzaren izenean.

Bitartean, herri txikiak ahulduz joan dira, biztanleria urritu eta zerbitzuak kaskartu dituzte, hiriarekiko dependentzian. Kasu askotan "lotarako auzo" bihurtu dira, lurrarekiko loturarik gabeko bizimodu anonimoa praktikatzeko leku lausoak.

Koronabirus gaitzak sortutako larrialdiak ordea bestelako errealitatea erakutsi digu. Lehen ez bezala begiratu digute hirian itxialdian ziren biztanleek, eta komunikabideetan bistaratu gaituzte. Esan liteke, behin-behinean bada ere bertatik bertarako harreman, zaintza eta baliabideen garrantzia ulertzeko balio izan digula.

Aurrera begira, ziurgabetasuna eta ohiturak aldatu beharra datozkigu. Daukaguna gehiago estimatu eta geure buruaren jabe izanez tokian-tokiko eredua garatzen lagundu behar liguke bizi izandakoak, krisi honetatik ezer ikasteko gai baldin bagara. Balio beza esperientzia gordin honek gutxienez hausnarketa egin eta herriko bizimodua suspertzen hasteko. Itziarko Auzo Udala trantsizio horretarako bitarteko egokia izan daiteke.

# “Hainbatetan gutxietsi eta hain beharrezko zaizkigun zaintza ogibideak lehen lerrora ekarri dizkigu krisiak”



**Arantza Egaña Aldalur (Mendaro, 1971), Itziarko auzo alkateari osasun alarma egoera kudeatzea tokatu zaio. Tokiko zerbitzuen balioa agerian jartzeko balio izan du bizitako egoera bereziak bere ustez eta baita ingurunea estimatzeko ere.**

**Bat batean Covid-19ak eragindako alarma egoera kudeatzea tokatu zaizu, nola egin duzue kudeaketa talde eragiletik?**

Bai, osasun larrialdi honek bete betean harrapatu gaitu, ez genuen horrenbesteko erasanik espero. Hasieratik egoera nahiko nahasia suertatu zitzaigun. Kudeaketa Debako Udalarekin koordinatu dugu nagusiki, osasungintza eta gizarte zerbitzuen alorretatik. Horrek erakunde arteko koordinazioa hobetu beharra erakutsi du, eta elkarlana indartzeko balio izan digu.

**Itziarren kutsatzeak eragin txikia izan du (edo ez du eraginik izan), baina ondorioak utzi ditu. Zaintza sarea, laguntza ekonomikoak... proposatu dituzue.**

Bai, gurean Covid-19a arin samar pasa den arren, neurri zorrotzak hartu ditugu. Zaintza sarean parte hartu genuen Debako Udala eta Gurutze Gorriaren eskutik. Eta, krisialdiaren ondorioak leuntzeko Kuttuna plataforma digitaletik laguntza eskaini dugu.
Bestalde, Deba-Itziar Biziberritzeko Planaren parte gara, zuzenean eragiten digutelako aurreikusitako hainbat neurrik. Horretaz gain Itziarko Auzo Udalaren baitan hainbat eragilez osatutako batzordea antolatzen ari gara, egoera honi erantzun bateratua emateko.

**Pertsonalki nola eragin dizu egoerak, nola bizi izan duzu?**

Nahiko gogorra egin zait. Guraso nagusiak dauzkat (89 eta 82 urte) eta zaintza lanak egunerokotasunean txertatzea tokatu zait, etxean gaztetxoak nituen bitartean. Bestalde, ziurgabetasun ekonomikoak kezkatzen nau. Hainbat lanpostu egoera larrian jarri ditu krisi honek eta herri ordezkari gisa ahal duguna dagokigu, txikitasunetik.

**Zer irakaspen utzi dizu egoera hau bizi izanak?**

Hainbatetan gutxietsi eta hain beharrezko zaizkigun zaintza ogibideak lehen lerrora ekarri dizkigu krisiak, ogibide femenino eta prekarizatuak gehienetan.
Bestetik tokian tokiko zerbitzuak balioetsi nahi nituzke. Itziarren bertan dugun eskaintzak (Gure Denda lekuko) eguneroko bizitzan duen garrantzia azpimarratu nahiko nuke.
Denboraren kalitatea ere neurtzen ikasi dut, lehentasunak zein diren ikusi eta ezinbesteko gauzei heltzen. Kalitatezko harremanak sentitu eta bizi naizeneko ingurunea estimatzen ere bai.

## “He aprendido a medir la calidad del tiempo y marcar prioridades para centrarme en lo imprescindible”

Debako herritarrek konfinamendu garaia nola bizi izan duten ezagutu nahi izan dugu. Hainbat herritarrek, bi galderari erantzunez eman digute hain iritzia.
Hemos querido conocer cómo ha vivido la ciudadanía debarra la época de confinamiento. Hemos recibido la opinión de varias personas a través de las respuestas a dos preguntas.

**TXARO CASTRESANA** - UDAL LANGILEA

**1.-** Bizitzen ari garen egoera oso berezia da, guztiontzat ezezaguna den etsai bati aurre egin behar diogulako eta hasieran batez ere, ez genekien nola jokatu. Gure lana orain arte beti egon da hurbiltasunean sustraituta, jendearekiko harremanak beti izan dira oso hurbilak eta horrela nahi izan dugu jarraitu. Ulertu dugu egoera honetan ere jendeak hurbiltasun hori sentitu behar zuela eta horretarako lan egin dugu, borondate onarekin baina aldi berean erne ibiliz.



Batzuetan babes neurriak ahaztu eta laguntzeko gogoak aurrean jarri ditugu, uneak horrela eskatzen duelako. Pedagogia asko egin dugu babes neurriak betearazteko, betiere egoera berezi baten barruan ulertuta. Orokorrean jendearen portaera oso ona izan da.

**2.-** Inoiz pentsatu ez duguna tokatu zaigu bizitzea, birus batek mundua geldiarazi du. Orain arte izan dugun bizimodua zalantzan jarri da, gure harremanak, gure askatasuna... dena egun batetik bestera apurtu da. Orain arteko bizitza modu ulertezin batean joan zaigu bi hilabete hauetan. Nik uste dut hausnarketa sakon bat egin beharko dugula hau dena barneratzeko, denbora honetan gauza asko ikusi ditugu, txarrak eta onak, jendearen bakardadea, sufrimendua baina aldi berean elkartasuna, solidaritatea... gauza guztiak ez dira txarrak izan eta ni honekin gelditu naiz etorkizunerako. Baikorra izan nahi dut eta gauza onekin nahi dut gelditu, baina ezin ahaztu bidean pertsona asko joan direla eta beste askok oso gaizki pasatu dutela, berriz ez gertatzeko.

**1. Nola bizi izan duzu(e) konfinamendu garaia?**

1.¿Como ha(n) vivido el tiempo de confinamiento?



**MIRIAM MARTIN** - VOLUNTARIA DE LA RED DE COSTURA

**1.-** Lo hemos sobrellevado bien, porque tenemos una vivienda amplia y además nos gusta estar en casa. Por supuesto, con nerviosismo por la situación desconocida que estamos viviendo.

**2.-** Veo el futuro próximo bastante complicado. Las consecuencias que va a tener la paralización de la economía, etc. En mi opinión nos va a costar recobrar el ritmo que teníamos antes, con mucho desempleo y poco consumo. Espero equivocarme, pero...



**JON AMUTXASTEGI** - KOLORE ANITZ TALDEKO KIDEA

**1.-** Egia esan, pentsa baino askoz hobeto ibili gara konfinamenduan, izan ere, momenturo umeekin gogoratu gara eta hauek etxean zeudela jakinda, ekintzak online egitea erabaki dugu. Horretarako, Instagram eta Facebook sare sozialen bidez jarri gara kontaktuan herriko haurrekin. Taldearen inguruan, positiboki jokatu nahi izan dugu beti, egoera txarrei alde ona atera nahian.

**2.-**Kontuan izan behar dugu egoera hau egunetik egunera alda daitekeena dela. Horregatik, errealistak izaten saiatzen gara eta gauzatu nahi ditugun ekintzak bizitzen ari garen egoerara moldatzen ditugu. Egia da, konfinamentu honen ondoren, gure udalekuen inguruko eta urtean zeharreko ekintzen inguruko ikuspuntua guztiz aldatuko dela.

## GOAZ ANTZERKI TALDEA

**1.-** GOAZ antzerki taldeak kezka handiarekin pasatu du konfinamendua. XXXIV. Antzerki Astea antolatuta genuenean bertan behera utzi behar izan genuen. Jarraian talde guztiekin hitz egin eta erabakiaren berri eman genien. Hainbat urtean antolatutako ekintza kultural hau ez egiteak pena handia eman digu, gure urteetako jarduera eta nahia ezin izan dugulako aurrera eraman. Baita ere azpimarratuko genuke 90 egun hauetan talde dinamika etenda gelditu dela.

**2.-**Momentu honetan daukagun egoera ikusita, ez dugu kultur ekitaldirik egiteko aukerarik aurreikusten.



## JOXEAN UNANUE SORASU - Udal langilea

**1.-** Harrituta, inoiz pentsa ezin genezakeen egoera baten aurrean, lan plangintza guztiak hankaz gora eta desinfekzio, larrialdi eta mantenu lanak soilik egiten aritu ginen hasieran.

**2.-** Etorkizuna nola izango den ez dut uste inork dakienik, baina aurrera egin behar dugu, guztiok lan eginda eta txo-rakeriak alde batera utzita.



**2. Nola ikusten duzu(e) etorkizun hurbila?**

2. ¿Cómo ve(n) el futuro próximo?

## DEBAKO GAZTE ASANBLADA

**1.-** Eguneroko dinamika guztiz hautsi digu eta antolaturik genituen ekintza asko bertan behera utzi behar izan ditugu. Bestalde, zailtasunak zailtasun, online bidez ekintza ezberdinak aurrera eramateko gai izan gara.

**2.-** Ziurgabetasunez beteta dago dena, antolakuntza mugatuta dago eta ezjakintasuna da nagusi. Lana bilatzea ohi baino zailagoa izatea espero dugu, jende asko kaleratua izan da edo erregulazio espedienteen menpe dago eta okerrera joateko itxura guztia du. Hori gutxi balitz, honen aurrean erantzun kolektibo bat antolatzeko baliabide eta gaitasunak ere ohikoa baino baldintzatuago daude.



## GURE KAI EDT

**1.-** Taldeko entseguak eta klaseak bertan behera utzi behar izan ditugu. Programatuta geneuzkan emanaldiak ere ezeztatu behar izan dira. Adibidez, apirilaren 25eko Martin Zalakain Debako ikuskizunean parte hartu behar genuen taldekide batzuk, eta zoritxarrez hau egiteko aukera ere galdu dugu.

**2.-** Kultura ekimenetan eragin handia izango du pandemia honek, eta dantza talde bezala, gugan ere ondorioak ekarriko dituela aurreikusten dugu. Honi aurre egiteko, beste alternatiba batzuk pentsatzen ari gara.

**OLATZ MATIAS BEITIA -** Ikaslea

**1.-** Bigarren batxilergoa modu birtualean egiten hasi ginen. Honekin batera, selektibitatera begira hainbat kezka izan ditut, gehien bat era birtualean emandako materia ez dudalako oso barneratuta. Buruan nituen bi bidaia bertan behera gelditu dira; Saharako errefuxiatuen kanpamendura joateko bidaia eta bigarren batxilergoko ikasketa bidaia.

**2.-** Pandemiaren aurreko egoera normala nahiko urrun ikusten dut. Normaltasun berri batera moldatu beharko gara. Klase eta lan birtualek indar handia hartuko dutela uste dut, edozein eratako aktibitate presentzialak kontu handiz burutu beharko ditugu.



**MARI JOSE OSTOLAZA ZUBIMENDI -** Trabajadora municipal

**1.-** Como otras muchas personas, siguiendo las medidas prescritas y usando la cabeza. Teniendo en cuenta a quien vivimos en casa, al principio con mucho miedo; luego poco a poco fui tomando conciencia de la situación real y tras valorar el entorno privilegiado en el que vivimos, me relajé un poco.

**2.-** El futuro oscuro. Veo una situación muy preocupante relacionada con la situación laboral y económica, traerá largas consecuencias. Por otra parte, lo que más me ha sorprendido con la COVID19 es que la gente no se da cuenta de que el virus todavía está aquí. Creo que hemos perdido el miedo, probablemente por no haber sufrido muy de cerca.



**1. Nola bizi izan duzu(e) konfinamendu garaia?**

1.¿Como ha(n) vivido el tiempo de confinamiento?



**JON GARATE -** Debako Udal Musika Bandako kidea

**1.-** Gure dinamika errotik eten behar izan dugu eta 2 kontzertu eta kalejira bat bertan behera utzi. Egungo teknologiari esker, kide bakoitzak bandarekiko duen konpromisoa etxetik eustea lortu da, partiturak modu birtualean edukiz eta bilerak birtualki burutuz. Gainera, Debarren Eguna ospatu nahi izan dugu Debako Martxaren bideo bat eskainiz.

**2.-**Ziurgabetasunarekin bizi arren dagokigun errealitate berri honetara egokitu behar gara, betiko normaltasuna berreskuratu arte. Udako emanaldiak bertan behera utzi behar izan ditugu segurtasun eta distantzia neurriak bermatu ezin direlako. Entseguak egiteko era ere aldatu behar izan dugu, talde txikietan elkartuz eta segurtasun protokoloa jarraituz.



**ARIADNA VELIC -** Voluntaria de la red de costura

**1.-** Para mi familia y creo que la de muchos el confinamiento lo llevamos con mucho respeto y hasta miedo de algo para lo que ninguno estábamos preparados. Aun así sacamos un poco de nuestra fortaleza e ingenio para ayudar y colaborar con lo que se necesitaba. En mi caso participé en la red de costureras para hacer mascarillas solidarias.

**2.-** ¿Como veo el futuro inmediato? Para empezar, con temor e inseguridades como muchos otros, la situación ahora mismo es difícil para todos y más para los pequeños comercios del pueblo, creo que es ahora cuando más unidos necesitamos estar, apoyando para poder hacer frente a la nueva realidad con respeto y sentido común.

## MIREN ITZIAR DEBA - Udal langilea

**1.-** Teknologia berrien erabilerari esker etxetik lan egin ahal izan dugu, telelana bitartez. Niretzat egoera arraroa izan da, herritarrekin zuzenean lanean ohituta, pixka bat gogorra egin zait. Baina bi hilabete luzeren ondoren, aurrez aurreko lanera itzuli gara. Espero dut eta sinetsi nahi dut lehengo egoerara itzuliko garela. Lan egiteko moduak malguagoa izan behar izan du, erabiltzaileen beharrei erantzun ahal izateko. Norberarekin egotea eta lehen garrantzirik ez zuten gauza normal horiek guztiak faltan bota izan ditut, besarkadak, familiarekin edo lagunekin bazkariak...

**2.-**Birus honek bizitzaren hauskortasuna erakutsi digu, ez garela ezinbestekoak, daukagun guztia edozein unetan saihestu daitekeela, eta honetatik aterarazi gaitzakeen gauza bakarra elkartzea dela. Ziurgabetasuna pertsonen jabe egin da, eta epe luzera pentsatzea ia ezinezko bihurtu da.



## DEBAKO IPUIN KONTALARIAK

**1.-** Ez ohiko egoera izan da denontzat. Kontaketak etxekoekin eta etxeko gauzekin egitea erronka izan da guretzat. Gure trebetasunak zorroztu ditu: telefonorako soporte imajinaezinak, youtube, movie maker... teknologia berriak eta kontakizunak bateratzeaz gain, talde gisa oso ondo funtzionatu dugu.

**2.-**Oraingo baldintzetan ipuin kontaketa bat irudikatzea oso zaila egiten zaigu. Hurbiltasuna, emozioak eta kontaktua (audiobisuala zein korporala) ezinbestekoak iruditzen zaizkigu. Pertsonen arteko 2 metroko tarteekin, denengana iristea zaila litzateke. Hala ere zuzenekoak egiteko irrikitan gaude. Ea laster aukerarik dugun.



### 2. Nola ikusten duzu(e) etorkizun hurbila?

2.¿Cómo ve(n) el futuro próximo?





## HIART LETE AKARREGI - Zehar Heziketa eta Programak elkarteko koordinatzailea

**1.-** Gure helburua adin-txikikoen ongizatea sustatzea izanik, inoiz baino garrantzitsuagoa izan da harreman sarea mantentzea. Mundu birtualera egokitzen ikastea tokatu zaigu. Bideo-deiak, pantaila bidezko topaketak, lehiaketak, sukaldaritza, kirola etxean... egunero 150 erabiltzaile ditugu. Erromesen aterpetxean dauden etxerik gabekoekin lanean aritzeko aukera izan dugu eta esperientzia oso positiboa izan da.

**2.-**Kezka puntu batekin bizi dut, lehen genuen sozializatzeko modua galtzearen beldurra hor dudalako. Ikusmin handiz nago, gizarteari jarri zaion erronka izugarria dela pentsatzen dudalako. Ardurak hartzea eta elkarren arteko kooperazioa eskatzen digun desafio izugarria jarri digu COVID 19ak. Eta gure esku daude hein handi batean aldaketa eta etorkizuna.

## ANE GALARRAGA RODRIGUEZ - Udal langilea

**1.-** Desde que se decretó el estado de alarma, junto con otras compañeras y compañeros, he estado llamando a personas mayores de 77 años: les hemos preguntado cómo están y si necesitan ayuda, les hemos informado del servicio de cuidados y les hemos ofrecido la posibilidad de charlar un rato con alguien. Superados los primeros días, ha sido un trabajo bonito, este que hemos estado haciendo en estos poco más de dos meses, enriquecedor; y especialmente, muy agradecido.

**2.-** El futuro que se avecina no será fácil, y para afrontarlo todas las personas tendremos que poner de nuestra parte para que el esfuerzo realizado hasta ahora no sea en vano. ¡Ánimo!.

## IKASKETA BAT GEHIAGO

Egun batetik bestera sekulako aldaketa jasan dugu. Alarma egoera honek krisi sozial eta ekonomikoa ekarri du: familiartekoak ikusi ezina, lan egoeran/baldintzetan aldaketak, kontziliazio arazoak, adineko pertsonen zaintzan zailtasunak, kultur eta kirol ekimenen geldialdia... Krisiak egunerokotasuneko arlo guztietan izan du eragina eta Udalaren jarduna ere egoera ezohiko eta ezegonkor honetara egokitu dugu astez aste, pertsonak erdigunean jarriz eta elkarlanean.

Horren adierazle dira herritar, udal langile eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean osatutako zaintza sarea, udal ordezkariekin egindako elkarlana eta egoeraren jarraipena (tartean 2020ko aurrekontuen doitzea), kultur eta kirol eragileekin izandako hartu-emana, udako zerbitzu eta dinamika egokituaren antolaketa, Deba-Itziar Biziberritzeko Plan Integrala...

Aldi berean, egoera honek ere ekarri du zer pentsatu eta zer ikasi. Nolako gizartea nahi dugun, zein kontsumo mota, zein bizitza abiadura edo dinamika, zein harreman mota... Zerk duen benetan garrantzia, zer den bigarren mailako beharra... Naturak eskertu du pausa egoera hau...

Gobernu taldeak, lanean jarraituko du Deba-Itziarko herritarren osasun eta segurtasuna bermatzeko eskura dituen baliabide guztiak jarriz, orain arte bezala elkar-zaintza eta elkarlana oinarri izanik. Pixkanaka “normaltasun berrira” egokitu beharko gara, bakoitzari dagokigun arduraz eta errespetuz.

Ikasketa gogorra bezain baliagarria izango zaigulakoan, animo eta zaindu gaitezen!

De un día para otro hemos sufrido un gran cambio. Esta situación de alarma ha provocado una crisis social y económica que ha afectado a todos los ámbitos de la vida cotidiana y la actuación municipal se ha ido adaptando semana a semana a esta situación inusual e inestable, poniendo a las personas en el centro y en colaboración con las y los demás representantes municipales.

Muestra de ello son la red de cuidados formada en colaboración con la ciudadanía, personal municipal y Cruz Roja, la colaboración con las y los representantes municipales y el seguimiento de la situación (entre ellos el ajuste presupuestario del 2020), el contacto con los agentes culturales y deportivos, la organización de los servicios adaptada a este verano, el plan integral de revitalización de Deba-Itziar, ...

El equipo de gobierno, junto con el resto de representantes, personal municipal y agentes municipales, seguirá trabajando con todos los medios a su alcance para garantizar la salud y seguridad de la ciudadanía de Deba-Itziar, basándose como hasta ahora en el cuidado y la colaboración. Poco a poco tendremos que adaptarnos a la "nueva normalidad", con la responsabilidad y respeto que nos corresponde a cada persona.

## ELKARLANA INOIZ BAINO BEHARREZKOAGOA

2020ko martxoaren 14a gure oroimenean grabatuta geldituko den data izango da, ametsik gaiztoenean ere inoiz imajinatu ezingo genuen egoera. Egoera arraro eta zail honi aurre egitea ez da erraza izango, baina denon artean lortu dezakegu.

Inork ez daki etorkizunak zer dakarkigun, baina alarma-egoera hasi zenetik, gainontzeko indar politikoekin lanean eta lankidetzan aritu gara premia larrienak identifikatzen, eskura ditugun baliabideak antolatzen eta sortzen joan diren arazo puntualei irtenbideak bilatzen.

Horren ondorioz, aurrekontuak egokitu behar izan ditugu eta gizarte-zerbitzuetako beharrei lehentasuna eman diegu, baina ezin ditugu ahaztu herriarentzat hain garrantzitsutzat jotzen ditugun proiektuak; hala nola, Artzabalerako bidea edo itsasadarreko eta hondartzako pasealekuen berritze-lanak.

Debarren Ahotsatik, pandemia honek eragindako kalteak minimizatzen saiatuko gara, krisiak kalte gehien eragindako kolektiboei lagunduz; hala nola, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonei, gure adinekoei, enplegu-galerak eragindako gizon-emakumeei, ostalaritza elkarteari, baserritarrei, bertako dendariei, kultur eragileei eta abarri.

Ez da erraza izango egoera honen kontrola izatea, eta ziurgabetasunak ez gaitu gehiegi lagunduko erabakiak hartzerakoan, baina beti izango dugu helburu argi bat: Deba-Itziar.

## EL TRABAJO EN EQUIPO MÁS NECESARIO QUE NUNCA

El 14 de marzo de 2020 será un día que quedará grabado en nuestra memoria, una situación que nunca nadie, ni en el peor de sus sueños se lo había imaginado. Esta es una situación extraña y difícil que va a costar superar, pero entre todos lo podemos conseguir.

Nadie sabe en realidad lo que nos va a deparar el futuro, por ello desde que comenzó el estado de alarma hemos estado trabajando y colaborando con el resto de las fuerzas políticas en identificar las necesidades más urgentes, organizar los recursos disponibles y en buscar soluciones a los problemas puntuales que han ido surgiendo.

Esto nos ha llevado a adaptar los presupuestos, dando prioridad a los servicios sociales, sin olvidar proyectos que consideramos importantes, como el camino a Artzabal, o la renovación del paseo de la ría y playa.

Desde DA, nos centraremos en minimizar los daños ocasionados por esta pandemia, apoyando a los colectivos más golpeados por la crisis, como las personas que se encuentran en riesgo de exclusión, nuestros mayores, los afectados y afectadas por la pérdida de empleo, el gremio de hostelería, baserritarras, el comercio local, agentes culturales etc.

No será fácil tener el control de esta situación, y la incertidumbre no nos ayudará en la toma de decisiones, pero siempre tendremos un objetivo muy claro: Deba-Itziar.

EZ DA INOR BIDEAN GELDITUKO

Legegintzaldi berria hasi zenetik urtebete igaro da, koronabirusak sortutako osasun krisiaren ondorioz udal kudeaketak garrantzia galdu duen urtea.
Guztia birrindu duen krisia, behar berriei erantzuteko aurrekontuak berreragitera derrigortu gaituena, gobernu-taldeari krisiaren kudeaketan dauden gabeziak zuzentzera lagun diezaioketen proposamenak egitera eraman gaituena, etorkizuna beste ikuspegi batekin begiratzera eraman gaituena, aurrean dugun errelitatea orain hilabete batzuk gogoan genuena ez dela jakitun izanda.
Nolanahi ere, EAJ-PNVk jakinarazi nahi dizue EZ DELA INOR BIDEAN GELDITUKO, egiten ari garela eta gure esku dagoen guztia egiten jarraituko dugula, pertsonen osasuna, gizarte eta ekonomia egoera ez dela krisiaren ondorioz ukituko bermatzeko eta egoera horri erantzuteko udal kudeaketa behartuko dugula.
Deba-Itziarko udal-politiken erdian PERTSONAK kokatzea lortuko dugu. Eta beti bezala egingo dugu, proposamen zehatzekin; batzuk aurrera egin dute eta dagoeneko gobernu taldeak abian jarri ditu, beste batzuk, berriz, ez dira aintzat hartu.
Ez gara nekatuko, eta irtenbideak, ideiak eta proposamen berriak egiten jarraituko dugu, Udalaren kudeaketa kalera gehiago hurbiltzeko.
Lortuko dugula uste dugu, baina asko dago egiteko.
Ez zaudete bakarrik, eta beti egongo gara zuen ondoan.

NADIE SE QUEDARÁ EN EL CAMINO

Ha pasado un año ya de esta nueva legislatura, año en el que la gestión del Ayuntamiento ha quedado diluida por la crisis sanitaria del coronavirus.
Una crisis que lo ha arrasado todo, que nos ha obligado a rehacer los presupuestos para atender a las nuevas necesidades, a elaborar propuestas que han ayudado al equipo de gobierno a corregir carencias en la gestión de la crisis, a mirar al futuro con otro prisma y siendo conscientes de que la realidad que se nos presenta, no es la que unos meses atrás teníamos en mente.
En cualquier caso, desde EAJ-PNV queremos trasladaros que NADIE SE VA A QUEDAR EN EL CAMINO, que estamos haciendo y vamos a seguir haciendo todo lo que esté en nuestras manos para garantizar que la situación sanitaria, social y económica de las personas, no se vea afectada por las consecuencia de la crisis y que obligaremos a que la gestión municipal de respuesta a esta situación.
Vamos a conseguir situar a las PERSONAS en el centro de las políticas municipales de Deba-Itziar. Y lo haremos como siempre con propuestas concretas, algunas ya han prosperado y el equipo de gobierno las ha puesto en marcha, otras simplemente ni se han contemplado.
No nos vamos a cansar, y seguiremos aportando soluciones, ideas y nuevas propuestas, para que la gestión del Ayuntamiento se acerque más a la calle.
Creemos que lo vamos a conseguir, pero queda mucho por hacer.
No estáis solos y siempre estaremos a vuestro lado.

# UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

## GILEN GARCIA BOYRA
ALKATEA

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA

alkatea@deba.eus

## ITZIAR IRIZAR BERISTAIN
ALKATEORDEA

OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK
BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA

itziaririzar@deba.eus

## ARITZ LARRAÑAGA UNANUE
ALKATEORDEA

BARNE ERREGIMENA
ONGIZATE POLITIKA
EUSKARA ETA KULTURA (JAIAK)

aritzlarranaga@deba.eus

## ANTXON ETXEBERRIA LARREA
HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA

antxonetxeberria@deba.eus

## NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA
EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA, MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)

nereaarrizabalaga@deba.eus

## ANTXOKA ELORZA ALTUNA
OBRAK, ZERBITZUAK
eta INGURUMENA

antxokaelorza@deba.eus

**Portu kalea, 1**
**+34 943 192 840**
**info@deba.eus**

DEBAKO UDALA

Debako Udala @DebakoUdala Debako Udala

ETORKIZUNA ORAIN

Debako Udala



# DEBA-ITZIAR BIZIBERRITZEKO PLAN INTEGRALA

Azken hilabeteotan, koronabirusaren eraginez bizi dugun ezohiko egoera dela eta, astez aste eta egunez egun, Udalaren jarduna egoera honetara egokitzeko erabakiak hartu eta ekintzak egitean oinarritzen ari da.
Aurrera begira ere, pertsonak erdigunean jarriz, lehentasunak markatu ditugu arlo sozial, kultural eta ekonomikoan, eta horretarako Deba-Itziar Biziberritzeko Plan Integrala osatu dugu udalbatzako alderdi, auzo udaleko ordezkariekin eta eragileekin elkarlanean.

En los últimos meses, debido a la situación excepcional que vivimos por el coronavirus, día a día, la actuación del Ayuntamiento se está centrando en tomar decisiones y realizar acciones para adaptarse a esta situación.
De cara al futuro, poniendo a las personas en el centro, hemos elaborado un plan integral de revitalización Deba-Itziar en colaboración con representantes de los partidos, la Entidad Local Menor de Itziar y agentes municipales.

## HARTUTAKO NEURRIAK
## MEDIDAS ADOPTADAS:

- **Hezkuntza-zaintza sarearen antolaketa**
  Organización de la red educativa de cuidados
- **Gizarte Zerbitzuak indartzea**
  Reforzar los Servicios Sociales
- **Musika eskola eta Kiroldegiko kuoten beherapena**
  Rebaja de cuotas de Musika Eskola y Polideportivo
- **Itxita egon diren komertzio/zerbitzuei udal zergak murriztea**
  Reducir los impuestos municipales a los comercios/servicios cerrados
- **Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia testuinguru berrian lantzea**
  Readaptar el PERCO (Plan Especial de Revitalización del Comercio)
- **Udalerria berrantolatzea (hondartzak, frontoi eta parkeak, naturguneak ...)**
  Reordenación del municipio (playas,frontones y parques, espacios naturales...)
- **Kultur eta kirol egitaraua berrantolatu eta eragileen diru-laguntzak doitzea**
  Reorganizar el programa cultural y deportivo y ajustar las subvenciones de los agentes
- **Udaleko antolaketa egokitzea**
  Adecuación de la organización municipal
- **Covid19az babesteko materiala erosteko partida sortzea**
  Creación de una partida para la compra de material de protección ante la Covid19

## FINANTZIAZIOA
## FINANCIACIÓN:

1. **AURREKONTUAREN MURRIZKETA**
   REDUCCIÓN DEL PRESUPUESTO
   .............................. **965.060,00€**
2. **GEHITUTAKO PARTIDAK**
   PARTIDAS AÑADIDAS
   .............................. **83.364,16€**
3. **SALBUETSITAKO DIRU-SARRERAK**
   INGRESOS EXIMIDOS
   .................................. **20.125€**